itzulpena: Karlos Cid Abasolo

Miroslav Holub

Munduko
Poesia
Kaierak

Miroslav Holub

itzulpena: Karlos Cid Abasolo

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Miroslav Holub
© itzulpenarena: Karlos Cid Abasolo
© edizio honena: Susa

2016ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Menturaz, ez dira erraz uztartzekoak zientzia eta poesia, bataren arrazoimena eta bestearen sentsibilitatea. Ezagun dugu, baina, artegintzan salbuespenetan topatzen ditugula maiz emakari ederrenak. Miroslav Holub-ek, bada, horixe gorpuzten du nolabait. Zientzialaria —immunologoa— ofizioz, poesiari eskaini zizkion aisialdiaren ordurik preziatuenak. Behin aitortu zuenez, Txekiako Idazleen Elkarteak ikerlari gisa jasotzen zuen soldataren halakoa eskaini omen zion bi urtez buru-belarri poesiagintzan jardun zezan. Eskaintza baztertu zuen batetik ikertzeari utzi nahi ez ziolako, eta bestetik, poesia idazteko denbora guztia izanda lerro bakar bat idatziko ez zuen beldur zelako.

Holuben inguruko gorabehera hauek guztiak hutsalkeriak lirateke baldin eta haren poesian bere ofizioaren arrastorik ez balego. Baina Holuben poesian begirada zientifikoa ez ezik haren lengoaia eta haren galderak ageri dira behin eta berriz. Bi mundu ustez hain banandu horien uztartzeak arriskuak eduki bazituela kontziente zen, baina artez erabili zituen metafora zientifikoak, *Mikroskopioan* poema ederrean adibidez.

Denak ez dira, halere, zientzia kontuak. Humanista antzinakoen erara, espiritu eta so ireki eta zabalekoa zen, eta horregatik, munduarena eta jendearena den orok zuen kezkatzen. Esaterako, poemotan bere herriaren (*Funtzionarioa*) zein, oro har, gizateriaren historiari (*Napoleon*) buruzko aipamenak topatzen ahal dira, gehienetan begirada kritiko-ironikoz. Harentzat historia ez baitzen kontu itxi eta determinatzailea, *Arbaso handiak* poeman ageri denez: "birusetatik substantzia heredagarri gehiago ditugu / haiengandik baino". Soslai humanista horretatik uler liteke halaber klasikoekiko (Arkimedes) edo filosofiarekiko (Kant) interesa. Holubek ondo ikusarazten digu jatorrian zientzia, filosofia eta artea bat eginik zeudela. Gogoan hartu bestela zer jartzen zuen Platonen akademiaren atarian: "ez bedi sar geometriarik ez dakienik".

Plzeň-en jaio zen 1923an, garaiko Txekoslovakiako mendebaldean (gaur egun Txekiar Errepublika). Bigarren Mundu Gerraren amaitzearekin, Pragara joan eta immunologo ibilbideari ekin zion. Aurretik ale solteak argitaratu bazituen ere, 1958an plazaratu zuen bere lehen poema liburua, *Denní služba* (*Eguneroko zerbitzua*), eta gerora hamar liburu gehiagotik

gora argitaratuko zituen, gehienetatik poemaren bat aurki dezakezula Karlos Cid-ek itzuli eta apailatutako antologia honetan. Hala ere, ez zen samurra izan Holuben publikazio ibilbidea. Bere herrian arrazoi politikoengatik zentsuraturik, atzerrian argitaratu behar izan zituen liburu gehienak harik eta 1979an betoa kendu zioten arte. Hala, batez ere mundu anglosaxoian, sona handia eskuratu zuen, eta XX. mendeko bigarren erdiko Europa erdialdeko poeta handienen artean kokatu izan dute. Horren adibide da *Penguin Modern European Poets* bilduma kanonikoan sartu izana, R.M. Rilke, Eugenio Montale, Vasko Popa edota Anna Akhmatova bezalako poeten alboan.

Txekoslovakiako Gobernuarekin izandako liskarrek ez zioten bere herriarekiko urruntzerik ekarri; hango ohitura eta tradizioek ere oihartzun egiten dute-eta Holuben poesiagintzan. Poema batean karpak arrantzatzeari buruz dihardu, zeina Gabonetako jaki preziatua den haren herrialdean; beste batean Kafkaren hilobian idazten du, kaieretan antologatutako beste poeta batek, Mallarmek alegia, Baudelaireren hilobian idatzi nola.

Bistan denez, poeta bakana izan zen Holub, bakana bere herrian zein atzerrian, nahiz eta, tamalez, gu-

rean apenas izan dugun haren berririk, 1991n Maite Gonzalez-ek *Hegats* aldizkarirako itzulitako zenbait poemaz landa.

BEÑAT SARASOLA

Mikroskopioan

Hemen ere badira paisaia ameslari,
ilargitar, abandonatuak.
Hemen ere badira osteak,
infanteria-soldaduak.
Eta zelulek, borrokalari,
munduan dagoen guztiagatik
dute bizia ematen.

Hemen ere badira hilerriak,
loria eta elurra.
Eta harrabotsa dantzut,
egoera neurrigabeen orroa.

Patologia

Hemen dautza
pobreen hizkuntzak,
jeneralen birikak,
salatarien begiak,
martirien larruak,

kristaltxo mikroskopikoen
absolutuan.

Gainetik irakurtzen ditut gibelaren itun zaharreko lore-hostoak,
burmuinaren oroigarritxo zurietan leitzen ditut usteltzearen
hieroglifikoak.

Hona hemen, kristauok,
zerua, infernua eta paradisua
flaskotxotan.
Eta ez dago erostarik,
ezta hasperenik ere.
Hautsa baino ez da auhendatzen.

Isiltzen da Historia
kapilarretatik
iragazia.

Berdintasun mutua. Anaitasun mutua.
Eta atsekabe hilkorren hiru koloreko banderetatik
jakitearen hariak
egunez egun
ditugu erauzten.

Arkimedes sastakatu zuen kaporala

Inpaktu ausartaz
hil zituen zirkulua, tangentea,
eta lerro paraleloen elkargunea
infinituan.

Laurdentze
zigorpean
debekatu zituen zenbakiak
hirutik gora.

Sirakusan orain
filosofo-eskola bateko nagusia da,
bi milurtekoz dago
alabarda batean eserita
eta idazten du:

bat bi
bat bi
bat bi
bat bi

Barnean

Gau absolutua,
kale absolutua,
Praga absolutua.

Deus ez.
Deus ez, zure begiak salbu.

Agian hormak,
agian sabaia,
agian lurraren birikak
azken arnasa emanik.

Inor ez.
Inor ez, zu salbu.

Linolioaren eta hormaren artean,
liburuaren eta ganibetaren artean,
eskularruaren eta pospoloaren artean,
izenaren letren artean,
betileen artean,
atzamarren artean,

isiltasunaren protonemetatik
haziko da zuhaitza.

Uhina ezbaian,
ontzia ateko bandan joan gabe,
ilea orrazian kantari.

Inoiz ez.
Inoiz ez nukeen sinetsiko.

Munduaren barnean
zoriona dago.

Ebakuntza

Hartu eskuan
bihotz langilea
(xuxurlaz kantatzen duen
historiaurreko txoriarena),
gibel langilea,
gibel langilea,
(itsaspeko ziza gosetua),
arima langilea
(lurpeko lurra,
esperantzaren
harizko ibaitzarra),

tumorea erauzi,
oinaze-gandorrak anputatu,
hodi berria,
aurpegi berria egin,

josi,
bendatu,
bisturia bota,
pintzak askatu,

eskuak garbitu,
izerdia lehortu,
zigarroa piztu.

Esan
aurrerantzean ez ezazue edan,
ez zaitezte galtzadan sar,
ez maitatu zorigaizki,
ez tirokatu zeuen burua,
zain zaitezte,
zain zaitezte
(obeditzerik balute bezala).
Eta berriro garbitu,
esterilizatu,
eskuan hartu...

Minutu bat gehiago
eutsi
odol galtzeak baino,
erradioaktibitateak baino,
hiltzaileek baino.

Besterik ez.

Poloaren konkista

Urratsak,
urratsak zoladuratik,
parketetik,
hormigoitik,
betiereko izotzetik.

Urratsak motxila bizkarrean eramanda.
Urratsak eguzkia
buru gain-gainean edukita.

Urratsak
menditik mendira,
hegazkinetik lerara,
kanpadendatik kanpadendara,
ekipo elektrogenotik ekipo elektrogenora,
torlojutik torlojura,
gosaritik bazkarira.

Urratsak
gauetik goizera.

Atzo

Edmund Hillary Hego Polora iritsi zen.

Balantzea

Urratsak.
Urratsak zoladuratik,
eskaileretatik,
ohol karraskarietatik.

Urratsak paper-zorroa eskuan edukita,
urratsak iluna garondoan izanda.

Urratsak mahairik mahai,
libururik liburu,
zenbakirik zenbaki,
izarrik izar,
infiniturik infinitu.

Urratsak ozeanoaren hondotik,
gauaren sabaitik.

Atzo
K. kontalaria unaturik erori zen.
Kontu-liburuak ez zetozen bat hiru xentimotan.

Napoleon

Haurrok, noiz jaio zen
Napoleon Bonaparte,
maisuak galde.

Duela mila urte, diote haurrek.
Duela ehun urte, diote haurrek.
Iaz, diote haurrek.
Inork ez daki.

Haurrok, zer egin zuen
Napoleon Bonapartek,
maisuak galde.

Gerra irabazi, diote haurrek.
Gerra galdu, diote haurrek.
Inork ez daki.

Nire auzoko harakinak txakur bat zeukan,
dio Patxikok,
Napoleon zuen izena.

Harakinak jo egiten zuen eta txakurra gosez hil zen
iaz.

Eta haur guztiek erruki diote orain Napoleoni.

Bost minutu aire-erasoaz geroztik

Plzeň hirian,
Tren-geltokia etorbideko 26. zenbakian
igo zen emakumea hirugarren solairura
etxe guztian tente zirauten
eskailera bakarretatik,
zerura ematen zuen
atea ireki
eta zurrundu egin zen
amildegiaren aurrean.

Zeren hemen
bukatu baitzen mundua.

Gero
ongi itxi zuen atea, giltzaz,
agian inork
haien sukaldetik
Sirius
edo Aldebaran
har ez zezan,

eskaileretatik jaitsi
eta behealdean eseri zen
zain
etxea berriz
noiz haziko
eta errautsetik senarra noiz itzuliko,
eta haurrak hankatxoetatik noiz lekedatuko.

Goizean goiz aurkitu zuten
harri eginda.
Txolarreek ahurra mokokatzen zioten.

Funtzionarioa

Aski da ebakitzea
eta isuriko da odola.

Aski da garrasia
eta dardaratuko dira hormak.

Ez da aski.

Gauerdian, eserita, idazten du:
Bilera... zatozte denok...
Bilera... zatozte denok...
Bilera... zatozte denok...

Begi gorriak. Zigarroen sugeak.
Egunez egun.

Mintzo da:
Langileen garaipen loriatsua...
Langileen garaipen loriatsua...
Langileen garaipen loriatsua...

Hareazko airea. Leihoen blindatzea.

Ez zaio boza erlastuko.
Ehun ahots ditu,
ehun esku.

Aitzurrean dabil
igandero
Uhříneves-en,
Petřín muinoaren azpian.
Burkideok... bakearen alde...
Burkideok... bakearen alde...
Burkideok... bakearen alde...

Lurra urratuko balitz
hark gorputzaz luke buxatuko,
lehenengoa edo bi milioigarrena.

Zuek haritzaren atzean
akabatzen zareten bitartean,
zuen eragozpenekin,

poltsa mukuru betearekin,
eskaileretatik,

harrietatik,
arantzetatik,

igo egiten da
etorkizunaren granitoa pisatzen duen
balantzara.

Leherketa

Bai,

baina gero iritsi ziren
igeltseroak,
medikuak,
zurginak,
jendea, pala eta guzti,
jendea, esperantza eta guzti,
jendea, trapu eta guzti,
etxe hezigaitzaren mehakak
laztantzen zituzten,
esparruaren bihotz taupakaria,
oinazearen gangarrak,

harik eta adreiluak oro itzuli ziren arte,
harik eta odol tantak oro itzuli ziren arte,
oxigeno molekulak oro

eta barkatzen zion
harriak harriari.

Paisaiako ahotsak

Lainoa gaubeilan.
Urruntasun neurrigabetik lemurren uluak.
Belarraren arima ilargi pean irriz.
Jendeak uste du airea ari dela negarrez.

Iluna enborrak marraskatzen ari da.

Okin hankamotzaren arima
orean botatako legamiaz kontu kontari.
Basozain urkatua
sokan bere artean kantuz.
Jostuna haritik
tuberkulosi-gelatik
gora.

Betikotasunak oxigenaturiko gaua.

Soldaduek
beroki oraino xuriz jantzirik
trenbide-pasaguneko barreren organo biraderaduna
jotzen dute geltoki ondoan.

Harri-koskorretan marruka ari da taberna.

Baina goizean
mamuak hiltzen dira
eta betiko ehortziak izango dira
titarean,
ogi biribiletan,
egur metro kubikoetan,
trabes
eta kisketa
gu bezain
hilezkorretan.

Arratsa hil zen

Goian, goian.

Azken hitzak sabaian noraezean
hodeien antzo.
Arasak negar zegien.
Amantala dardarka,
amildegia estaliko balu bezala.

Bukaera zen. Gazteak lotara joan ziren.

Baina gauerdi aldera
hildakoa jaiki zen,
kandelak piztu (errukia diote),
azken galtzerdia azkar josi,
bere berrogeita hamar koroak
ziape-pote batean aurkitu,
eta mahaian ezarri,
armairutik eroritako guraizeak aurkitu,
urtebetez topatu ezin izan zuten
eskularrua aurkitu,
kisketa guztiak probatu,

ura itxi,
kafea bukatu

eta berriz erori zen atzerantz.

Goizean eraman zuten.
Kiskalirik zegoen.
Errautsa zarpaila zen
ikatz
marroi
arruntezkoa balitz bezala.

* koroa: *Txekoslovakiako (1918-1992) moneta (itzultzailearen oharra).*

Gaua kaleetan

Txori-dendatik
dator kantua.

Etxeak hazten dira.
Zenbait adreilu
tenplutik irteten.
Han-hemenka
luma
edo katua
edo txakurra
erortzen da zerutik.

Txori-dendatik
dator kantua.

Etxeak hazten dira.
Jende zuzenaren odol zuria
darie hormei.
Milioien arnasan
jira-biraka dabil hegan ilargia,
bihotz neurrigabeak

pirritan darama gaua egunerantz.

Aski zaigu bizirik egotea.
Arnasa hartzen dugu.

Lurraren errotazioan ere
gara erantzule.

Euria gauez

Sagu-hortzez
euriak harriak ditu haginkatzen.
Zuhaitzak hiritik pasieran
profeten moduan.

Agian iluntasunaren aingeru desitxuratuen
negar-zotina,
agian izurri zuritik marmarrez
sendatzen diren
atalaseko loreen
irri eutsia.

Agian Espiritu Santuaren
urruma
edozein bizkar-teilaren pean.

Denbora esanezina
zeinean bozgorailuen hotsa hausten baita
eta poemek
ez baitute hitzik,
tantak baizik.

Eulia

Sahatsaren enborrean pausaturik,
euliak Crécyko batailaren zati bat
behatzen zuen,
baita orro,
arnasestu,
auhen,
aztalka eta erorikoak ere.

Vladincourt-eko
euli ar begi-arre batek
eulia estali zuen
frantses zaldieriaren
hamalaugarren erasoan.

Euliak hankatxoak astintzen zituen
tripak irekita zeuzkan zaldi baten bizkarrean,
eulien hilezkortasunaz
hausnarka.

Clairvaux-eko dukearen
mihi urdinean

pausatu zen lasaiturik.

Isiltasuna abailduta,
usteltzearen xuxurlak soilik
gorputzak inguratu
eta zenbait esku eta hanka,
dar-dar batean,
oraino ere borrokan ari zirenean pago baten azpian,

eulia arrautzak erruten hasi zen
erregeren armazain Johann Uhr-en
begi bakarrean.

Eta, halako batean, mokoka jan zuen
su hartutako Estrées-etik
ihesi zetorren sorbeltz batek.

Oda pozari

Jada esperantzarik ez denean maitatzea:
hori baino ez da amodioa.

Zunda-globo bat jaurtitzea
jada hamar erori direnean,
berrehun untxi hartzea
ehun hilak direnean:
hori baino ez da zientzia.

Sekretuaz ari zara galdezka.
Izen bakarra du:
berriz ere.

Azkenik,
uretango bere irudia
darama hortz artean txakurrak,
jendeak ilargi berria errematxatzen du,
maite zaitut.

Besoak altxaturik
dituzten kariatideen antzera

granitozko denbora dugu tinkatzen

eta, garaiturik,
beti irabaziko dugu.

Maitasuna

Bi mila zigarro.
Berrehun kilometro
hormatik hormara.
Elurra baino hutsalagoa den
beila-betikotasun bat eta erdi.

Hitz tonak,
pterodaktiloek harean utzitako
hatzak bezain zaharrak.

Izkiriatu ez ditugun ehun liburu.
Eraiki ez ditugun ehun piramide.

Zarama.
Hautsa.

Munduaren hasieran bezalako
mingostasuna.

...

Benetan diotsuet:

ederra izan zen.

Basoa

Kanbriarraurreko baso batean
non txorien mamuek
granitozko bihiak kraskatzen
eta zuhaitzen estatuek
esku beltzez
hodeiak mehatxatzen dituzten,

bat-batean
dira burrunbak aditzen
historia
errotik aterako balitz bezala,

belarra laztu egiten da,
harritzarrek dar-dar dagite,
arrailtzen da lur azala

eta hazten

esnegorria,

bizitza bezain neurrigabea,

bizitza bezain neurrigabeak diren
mila milioi zelulaz betea,

betierekoa,
urtsua,

mundu honetan estreinako aldiz

eta azkenekoz.

Hegalak

Balearen
anatomia
mikroskopikoa
dugu
horrek
gizakiari
segurtasuna
ematen dio.
William Carlos Williams

Mikrobioentzako
unibertsoaren mapa
dugu,
unibertsoarentzako
mikrobio baten mapa
dugu.

Mikroprozesagailuzko
xake-maisu bat
dugu.

Baina, batez ere,

indarra dugu
ilarrak garbitu,
ahurretan ura eraman
eta sofa pean
ordu luzez
torlojutxo egokia bilatzeko.

Horrek
hegalak
ematen ditu.

Etxearen anatomia

Epidermis ekzematiko
eta urratuaren azpi-azpian
atso-xuxurla frenetikoa.
Hazkura.

Teilatupean,
zahartzen ari den argiaren esklerosia.
Sotoaren birika urdinduetan,
ilunaren tuberkulosia.

Eta ilargiak ere ez du
esnezko antibiotiko tantarik
luzatzen.

Hormak ez daude elkarri ondo itsatsita,
sekretuaren malko odolezkoak
darizkie eraikineko galeriei.

Baina eskeleto osoaren azpian,
mahai eta ohantzeen,
beila eta ametsen,

estufa eta katiluen
organo harrigarrian
bizitzazko ehun beroa:

zorion hautemanezinaren
biosintesia,
etorri eta alde egiteko energiaren
biosintesia,
hiriak eraiki,
arropa garbitu,
maitatu,
gorrotatu,
epaitu
eta ulertzeko energiarena.

Eta gelaz gela,
zelulaz zelula,
zuntz ikusezinetatik gaindi
zirkulatzen da belaunaldien memoria:

Etxea.

Harria harri gainean
dagoen bitartean,

eta gizon bakar bat,
eta emakume bakar bat.

Hizkuntza hilaren ariketa-liburua

Hau mutila da.
Hau neska da.

Mutilak txakurra du.
Neskak katua du.

Nola du izena txakurrak?
Nola du izena katuak?

Mutila eta neska
pilotan ari dira.

Nora doa pirritan pilota?

Non dago ehortzirik mutila?
Non dago ehortzirik neska?

Irakur
eta itzul ezazue
isiltze eta hizkuntza guztietara!

Idatz
ehortzirik
zaudeten lekuan.

Eskua

Belarrari luzatu genion eskua
eta honatx garia.
Suari luzatu genion eskua
eta honatx bengala.
Pixkanaka,
zuhurki,
jendeari
luzatzen diogu eskua,
zenbait jenderi.

Atea

Joan eta ireki atea.
Agian hor kanpoan
zuhaitza edo oihana dago,
edo lorategia,
edo hiri magikoa.

Joan eta ireki atea.
Agian hor txakurra dabil atzaparka.
Agian hor aurpegia dago,
edo begia,
edo irudiaren
irudia.

Joan eta ireki atea.
Hor lainorik bada,
erori eginen da.

Joan eta ireki atea.
Hor txioka ari den iluna baino
ez balego ere,
hor haizea baino

ez balebil ere,
hor
deus
ez balego ere,
joan eta ireki atea.

Bederen
haize bolada
izanen da.

Garagardotegia

Espiritu ongarria
mukosei darie,
zilarbiziaren antzo
kapilarretatik gora,
burmuina blaiturik
burugainera igotzen da,

zenbait zelula balantzaka
toskazko burezurretik gorantz.

Hau poza gaur ere hartu duguna.

Pinpirin

Esekitokian zintzilikaturiko arropa lisatua
erreberentzia egitera bidaltzen du.

Beirazko begia
keinu egitera bidaltzen du.
LP diskoa
solastatzera bidaltzen du.

Protesia
hanka batekin estu-estu egotera bidaltzen du.
Hortzordea
eskua musukatzera bidaltzen du.
Itzal labetik atera berria
lagun egitera bidaltzen du.

Zurezkoa delako,
adarra zerurantz,
adabegia belarri atzean,
erroa buruan.

Maisua

Lurra jiratzen da,
dio ikasle txikiak.
Inola ere ez, lurra jiratu egiten da,
dio maisuak.

Mendiak berdatzen dira,
dio ikasle txikiak.
Inola ere ez, mendiak berdatu egiten dira,
dio maisuak.

Bi bider bi lau dira,
dio ikasle txikiak.
Bi bider bi lau dira,
zuzentzen dio maisuak.

Maisuak hobeki baitaki.

Arratseko natura hila protoplasmarekin

Etxeak arrastiriaren likenaz
estaltzen dira,
irratiko albistegiak
fatxadetatik egiten du gora,
hanburgesa bere artean kantari.

Horrelakoa-da-bizitza
izeneko protoplasmak
leiho guztietatik ateratzen ditu
atso-buru zoliak dituzten irtenguneak,
oinezkoak blaitzen ditu,
aurreko etxeko oheetan sartzen da,
malkoak, liskar-zatitxoak,
haurdunaldi eta abortuak xurgatzen ditu,
auto eta telebistak zikintzen ditu,
arrautzen prezioez hanpatzen da,
adulterioez puzten da,
exospora bihurriak bereizten ditu
gure-denboran-ez-zen-halakorik-gertatzen

Eta artean iluntzean distiratzen du
agortzen ari den itsaso hilak bezala

edredoien, marmeladen eta estratosferaren artean.

Asmakariak

Gizon jakintsuak, toga zuriz jantzita, Festetara azaldu dira
beren lanaz kontuak ematera eta Gelos erregek entzun ditu.

“Oi, errege, dio batek, hegalak sortu ditut
zure tronurako. Hegaka duzu gobernatuko”. Pozarren
egin du txalo batzar guztiak eta gizona ongi saritua izan da.

“Oi, errege, dio bigarrenak, dragoi automata bat sortu dut
zure etsaiak automatikoki birrinduko dituena”. Pozarren
egin du txalo batzar guztiak eta gizona ongi saritua izan da.

“Oi, errege, dio hirugarrenak, amesgaizto-erauzgailu bat
sortu dut. Deusek ez du zure lo gorena galaraziko”. Pozarren

egin du txalo batzar guztiak eta gizona ongi saritua izan da.

Baina laugarren gizonak dio: “Urte osoan ez zait deus, baina deus ere atera. Ukitu dudan oro zapuztu egin dut”. Batzarra inarrosi eta Gelos errege jakintsua isildu egin da.

Geroago egiaztatu zen laugarren gizon hura Arkimedes zela.

Irakaskuntza

Zuhaitzak, sartu eta, erreberentzia egin du, esanez:
Ni zuhaitza naiz.
Zeruko malko beltza isurtzen da hona, eta dio:
Txoria naiz.
Hurbildu da
amaraunetik
amodioa bezalako zerbait
eta dio:
Isiltasuna naiz.

Baina gero arbelean zabar-zabar jarri da
zamarraz jantzitako zaldi
nazional-demokrata
eta errepikatzen du,
belarriak alde guztietara mugituz,
errepikatzen eta errepikatzen:
Historiaren motorra naiz,
eta
guk guztiok
aurrerabidea
maite dugu,

eta
kemena,
eta
borrokalarien sumina.

Eta hara non ikasgelako atearen azpiari
errekasto mehea osatuz
odola darion.

Zeren hasten baita
errugabeen
laurdenkatzea.

Nolakoa da bihotza?

Ofizialki bihotza
obalatua, gihartsua da,
irrikaz betea.

Baina bihotza margotu zuenak badaki
era berean badela

izarra bezain puntazorrotza,
eta batzuetan
gaueko txakur deslaia
bezain ahula,
eta batzuetan
arkanjeluaren tinpanoa
bezain bortitza.

Eta batzuetan
delineatzailearen ametsa
bezain kubikoa,
eta batzuetan
sarean dagoen baloia
bezain alaiki biribila.

Eta batzuetan marratxo mehearen gisako,
eta batzuetan leherketaren gisako.

Eta haren barnean
soilik ibaia dago,
presa,
eta, gorago, arraintxo bakarra,
urrutitik urrekara ez dena.

Halakoxe mazkar
jeloskor
grisaren
antzeko baino ez.

Hau ez da nabaria, jakina,
lehenengo begiratuan.

Bihotza margotu zuenak badaki
aurrena egin behar zuela
betaurrekoak,
ispilua kendu,

boligrafoa eta kalko-papera

jaurti,

eta oso luzaroan
kanpoan
ibili.

Hitz hori

Poeten hitzak dantzuzkit
loretan dauden adaburuetara
azukrea legez isuriak.

Baina hori ez da hitz hori.

Eta mintzalarien hitzak,
maldan behera joan eta
harri gainetik pozarren saltoka dabilen zalgurdia bezalakoak.

Baina hori ez da hitz hori.

Eta jendetza zalapartatsuaren gaineko geruza bezalako
hitzak.

Baina hori ez da hitz hori.

Eta maitalearen hitzak,
zure belarrietan jarritako

perlazko arrakadak bezalakoak.

Hori ere ez da hitz hori.

Baina bi mutiko
dantzuzkit
Pragako Hloubětín auzorako
edo Marterako
bidaiaz eztabaidatzen

eta batek dio:

Benetan, nire ohorezko hitza duzu.

Eta horixe da hitz hori,
denboran eta espazioan
Lurraren ardatza
nahi gabe
bermatzen deneko
puntu tinkoa.

Bufoiak

Nora joaten dira bufoiak?

Zer jaten dute bufoiek?

Non egiten dute lo bufoiek?

Zer egiten dute bufoiek
jadanik inork,
baina inortxok ere irri egiten ez badu,
amatxo?

Lurra arratsean

Arrats batean bizkarra laztandu nion
Lurrari.

Harrizko bizkarrezurra atzeman zitekeen
izarren buruei eutsiz.

Akuri grisen
dardara indargea
antzeman zitekeen sakonetik.

Munduaren hastapena

Hau zerua da
eta hau lurra,
lepondoko hotzikara bezalako zerua,
ahurretako azala bezalako lurra.

Hau zuhaitza da,
gorantz luzaturiko eskua,
hau harria da,
horizontearen malkoa.

Hau odola da
eta hau haizea,
patuaren bafada neurrigabea
iparraldera, ekialdera,
mendebaldera, hegoaldera,

hau gorde ezak,
hau hautsi,
hemen eseki txoria,
hemen hedatu bidea,
hemendik sakonera,

hemendik izarretarantz,

ez egin estropezu gero,
ez hadi hoztu.

Eta lehortu sudurra!

Gogoeta arras laburra m letraz

A,	b,	c,	d,	e,
f,	g,	h,	i,	j,
k,	l,	n,	ñ,	o,
p,	q,	r,	s,	t,
u,	v,	w,	x,	y,

zeta.

Gogoeta labur bat erlatibitatearen teoriaz

Albert Einsteini, solasean
(Knowledge is discovering
what to say) — solasean, bada,
Paul Valeryrekin,
galdetu zion honek:

Einstein jauna, nola egiten duzu lan
zeure pentsamenduekin? Bururatu ahala
apuntatzen dituzu?
Ala gauera arte
itxaroten duzu? Ala biharamun goizera arte?

Albert Einsteinek arrapostu:
Valery jauna, gure lanbidean
hain dira bakanak pentsamenduak, ezen
inork baten bat aurkitzen duenean
ez baitu, ziur, ahaztuko.

Ezta urtebetean ere.

Gogoeta labur bat argiaz

Ikusteko egiten dugu argia.

Siluriarrean, Siluriarra ikusteko egiten zuten argia.
Uholde nagusian, uholdea ikusteko egiten zuten argia.
Troian, Troia ikusteko egiten zuten argia,
aldi berean inguruko greziarrez ohartu zirelarik.
Iluminismoan iluminismoa ikusteko egiten zuten argia.

Gaur ere kasu hori ematen da.

Bilakatu,
espezieak bilakatu ziren, hala nola ipurtargiak,
baita lanbideak ere, hala nola zuzi-eroaleak.

Energia asko argi da bihurtzen,
elektrikoa eta kimikoa, mekanikoa eta biologikoa.
Bateria bat ere aurkitzen da batzuetan.

Hainbesteko argia sortu zen, non izkina atzean ere
dakusagun,
albokoaren urdaileraino ere badakusagun,
gauaren sustraitxoetaraino ere badakusagun.

Ez, ikustea ez da, ez,
txantxetakoa.
Baina ikusi egin behar da
egin ahal dezagun argia,
argia,
argia,
itsutzeraino.

Gogoeta labur bat hesiaz

Hesia
ez da inon hasten,
ez da inon bukatzen,
eta
deneko lekua banantzen du
falta deneko lekutik.

Zoritxarrez, alabaina,
hesi bakoitza erlatiboki
zeharkagarria da, hau txikitxoentzat,
hau nagusientzat, eta, hala,
hesiak,
banandu ordez seinalatzen du
banandu beharra dagoela.
Eta barneratzea zigortzen dela.

Zentzu horretan,
hesia lasai asko
ordezka dezake
hitz gaizto batek, batzuetan
hitz on batek ere, baina gehienetan

inori ez zaio halakorik otuko.

Zentzu horretan,
hesi zinez perfektua da
ezereza ezerezetik
banantzen duena,
ezer ez dagoeneko lekua
berdin dioneko lekutik.

Hesi absolutua da, poetaren hitzaren antzekoa.

Gogoeta labur bat karpak hiltzeaz

Mazoa
eta ganibeta hartu
eta behar den tokian
jotzen da karpa, zirkin gehiegi egin ez dezan, zeren zirkin egiteak konplikazioak baizik ez baitakartza eta irabaziak gutxitzen.

Eta begiraleek begiak erdi itxi, trebezia miretsi,
eta diru-zorroa arakatzen dute. Eta papera prest dago biltzeko. Eta tximiniei kea darie.
Eta Gabonak leihoetara agertu, zorutik herrestan ibili,
eta baldeetan plisti-plasta egiten dute,

Halakoxea da pozaren legea.

Karpa animalia egokia ote den baino ez zait otu.

Zeren eta askoz animalia hobea litzateke
luzatuta — ezarrita — oratuta
bere begi urdinak jiratuko lizkiekeena
mazo, ganibet, diru-zorro, paper,
begirale, tximinia
eta Gabonei

eta zerbait esatera

iritsiko litzatekeena. Adibidez:
Hauek dira nire egunik onenak; hauek dira nire urrezko egunak.
Edo:
Nire gaineko zeru izartsua eta nire baitako lege etikoa.
Edo:
Eta, hala ere, jira-biraka dabil.

Edo, bederen:
Aleluia!

** Karpa Gabon Gaueko janari nagusia izaten zen txekoslovakiarrentzat (eta izaten da txekiarrentzat). Karpa-saltzaileek kaleetan baldeak jarri eta hor dauzkate arrain horiek, uretan igeri, eta bitako bat: saltzaileak bertan hiltzen du karpa, bezeroak hala erabakita, edo, bestela, bizirik eraman dezake etxera erosleak: behin etxean, bainuontzia urez bete eta bertan dauka bizirik, Gabon Gaueko afaria prestatu arte (itzultzailearen oharra).*

Gogoeta labur bat atso gurditxodun batez

Demagun atso bat eta demagun gurditxo bat.
Beraz, A atso baten eta G gurditxo baten sistema.

Sistema mugitzen da A ataritik I izkinara,
I izkinatik H harrira, H harritik
B basora, B basotik Z zerumugara.

Z zerumuga, ikusmena bukatzen
eta oroimena hasten den lekua da.

Hala ere, sistema mugitzen da
A abiadura konstantez,
bide konstantetik,
mundu konstantetik eta
patu konstantetik,
bere bulkada eta bere zentzua berez
berreskuratuz.

Sistema erlatiboki independentea da hori,
zerumugatik zerumugarako paisaietan

beti atso gurditxodun bat.

Eta horrela behin betiko sortzen da
unitate geodesiko hori,
joan-etorriko bidaiaren unitatea,
udazkenaren unitatea,
gure eguneroko ogiaren unitatea,
haizearen eta behe-zeruaren unitatea,
urrutiko sorlekuaren unitatea,
geuk ere barkatzen diegun zordunen
unitatea.
Ilunabarraren unitatea,
oinatzen eta hautsaren unitatea,
bizitza asetzearen unitatea amen.

Bazkaria

Zopa azken koilarakadaraino hartu behar, horrexetan baita indarra.
Jan ezak zopatxoa, milika horrek!
Bestela, ahula izanen haiz eta ez haiz haziko.
Eta errua heurea izanen duk.

Bidenabar, hiri eta nazioek ere hazi ez izanaren errua dute.
Hiri txikiei hiri handi bihurtu ez izana leporatzen diet. Haientzat kalte.
Nazio txikiei boteretsu bihurtu ez izana leporatzen diet. Haientzat kalte.

Accuso le piccole nazioni...
I blame the little nations...
Ich beschuldige die kleinen Nationen...
J’accuse les petites nations...

Beraz, irentsi ezak zopa izoztu aurretik!

Poetarekin elkarrizketan

Poeta al zara?
Bai.

Eta nola dakizu?
Poema bat idatzi nuen.

Poema idatzi izanak poeta izan zinela esan nahi du.
Baina orain zer?
Noizbait beste poema bat idatziko dut.

Beraz, agian noizbait poeta izango zara berriro. Baina nola jakinen duzu
benetako poema izanen dela?
Azken hau bezalakoxea izanen da.

Hortaz, ez da batere poema izanen. Poema behin bakarrik da, bigarrenez ezin izan halakoxea.
Azkena bezain ona izanen dela nahi dut esan.

Baina ezin duzu hori pentsatu. Poemaren ontasuna ere behin bakarrik da

eta ez dago zure esku, zirkunstantzien esku baizik.

Susmoa dut zirkunstantziak berdinak izanen direla.

Hala uste baduzu, seinale sekula ez zarela poeta izan, ezta izanen ere. Zergatik uste duzu, beraz, poeta zarela?

Bai, egia esan, ez dakit, ba...

Baina zu nor zara?

Jende zaharraren lorategia

Huntzaren ugaltze kaltegarria.
Eta belar orraztu gabea,
dagoeneko ez baitu axolarik.
Zuhaitzen azpian, gotiko
emankorraren oldarra.
Iluntzea, hala mitologikoa
nola hortz gabea.

Alabaina, Minotaurok ospa egin zuen
hesiaren zulotik.
Ikaroak nonbaiteko
amaraunetan ziren korapilatu.

Egunsenti argitsuan
zuhaixka artean bistaratzen da
zirtzil, gris, ozar,
gertaeraren kopeta-hezurra.
Eta hitzik gabe hanpatzen da.

Udazkenaren filosofia

Azken eguzkiaren printzak,
hazta-haztaka doaz atzamartxoak orbel horitik
kanpoan. Leihoan islatzen dira
liburua eta silueta eta
silueta, ileen aureola,
aurten gaitu
historiak zeharkatu
argiak amarauna bezala.

Galdezka nago
nagusi den jenio gabezia
ez ote duen hirugarren estadio
luetiko tertziarioen desagerpenak eragin.

Jainkozko armiarmatxo bat
igotzen da zure, nire
eta aspirinaren gainetik.

Barnerako bidaia

Mintzairaren iturrietara bidean
luzaro ibili zineten noraezean
harrien ordez begi irekiak dautzan gauerdiko lurraldean.
Gero bidea amildu zen izotza potxingoan legez,
eta erori egin zineten. Milaka urte.

Amaraunezko sototxo
idor leihogabe batean
zeundeten. Sabaian
bizpahiru berbatxo elbarri kuzkurtzen ziren
(ni... kanpo... berde)
eta zoruan ulua zebilen
biraka.

Ate-danbatekoa jo zenuten eta ospa.
Agian barnea, esan zenioten elkarri,
barnea, beharbada, kanpoan egongo da.

Gaueko azken autobusa

Azken autobusaren burrunba
gaueko
bizkarrezur-kanalaren
sakontasunean iraungitzen da.

Izarrak dardarka ari,
lehertzen ez badira.

Ez dago beste zibilizaziorik.
Soilik izu
leun galaktikoa
metanoaren basean.

Ametsak

Gizakiarengandik amiñi bat hurrupatzen dute,
ilargiak ihintzetik legez.
Soka burugainetik hazten da
bertikalki gora.
Zisne beltza harri-koskorrean
txitatzen ari da.
Eta zeruan aingeru multzo batek
gaueko irristada-eskolan
du ikasten.

Amets dagit, hortaz, amets dagit.
Amets dagit
hiru bider hiru bederatzi direla,
indarrean dagoela
eskuineko eskuaren legea,
eta zirkuak alde egiten duenean
zelaigune zapalduan
belarra haziko dela.

Bai, belarra.
Belar adiera bakarrekoa.
Belar soila.

Urrutiko uluak

Alsazian,
1885eko uztailaren seian
txakur amorratu batek
bederatzi urteko Joseph Meister lurrera bota
eta hamalau aldiz zuen ausiki.

Meister izan zen estreinako pazientea
Pasteurrek bere txertoarekin
birus ahulduzko
hamahiru dosi progresibotan
salbatu zuena.

Pasteur
hamar urte geroago hil zen, iktusez.
Meister atezainak
berrogeita hamar urte geroago
bere buruaz beste egin zuen
alemaniarrek Pasteurren institutua
txakur gizagaixoak eta guzti
okupatu ziotenean.

Birus hark soilik
iraun zuen gauzen gainetik.

Immanuel Kant

Odol zelula zurien filosofia:
hau ni da,
hau ez-ni da.
Zeru izartsu ez-ni,
sakonaren sakonean
ezin hobeki ispilatua.
Immanuel Kant,
sakonaren sakonean
ezin hobeki ispilatua.

Eta hartaz deusik ez daki,
soilik haize boladaren beldur da.
Eta horretaz deus ez daki
horixe bada ere arrazoi
hutsaren kritika.

Sakonaren sakonean.

Erleak lasaitu zirenean

Gizon zahar bat
bat-batean hil zen
bakarrik, lorategiko apo-belar pean.
Ilundu arte egon zen etzanda
erleak
lasaitu zirenean.

Heriotza ederra izan zuen, ezta,
sendagile jauna?, dio
emakume beltzez jantziak,
zeina lorategira iristen den
lehenago bezala,
larunbatero,
poltsan beti birentzako bazkaria
eramanda.

Olšany auzoko hilerri judua, Kafkaren hilobia, apirila, egun eguzkitsua

Mihitik isuritako zenbait hitz dabiltza
astigar zurien azpitik miatzen.
Abandonu hurbila
eta, beraz, harrizkoa.

Gregor Samsa gogorarazten duen
ate ondoko gizon zahar
metamorfizatu gabeak
argi biluzi horretan
begiak erdi itxi
eta edozein galderari erantzuten dio:

Barkatu, ez dakit,
ez naiz Pragakoa.

Abigdor Karoren bidaia-liburutik

Lur hura
markatu izan dute
hainbat gurutze eta gurutzetxok
bidegurutzeetan
eta elur eta euri
bideetatik gaindi,
basoen
eta pentsamenduen
eta hirien bazterretan.

Anitzetatik
Jesukristo dago zintzilikatuta.
Anitz hutsik daude
oraindik.

** Abigdor Karo: Poeta judua (1389-1439). Bere hilobia zaharrena da Pragako hilerri juduan (itzultzailearen oharra).*

Arbaso handiak

Gauez
haien siluetak zeru hutsaren kontra
marrazten dira
Troiako zaldi-erregimentuaren moduan.
Haien marmarioa putzuko
ur nabarmen bizitik
igotzen da.

Hala ere,
arrautza kraskatzen den bezala eguna lehertzen denean
eta zuzenean gizon armatu borradunak jaiotzen direnean
eta amak odoletan blai daudenean,

haiek aza-hostozko hegalak
dituzten tximeletak dirudite,
lainozko jelea dirudite,
ume-marra zimel batek kalkatua,

haien apenas markaturiko

eskuak dardarka daude,

arnasa hartzea ahazten zaie
eta hitz ulergarri
soil bat esatearen beldur dira.

Finean,
birusetatik substantzia heredagarri gehiago ditugu
haiengandik baino.

Ez dute indarrik.
Eta gu indarrik ez dutenen
indarra behar gara izan.

Lerro paraleloen sindromea

Bi lerro paralelok
beti egiten dute topo
geure eskuaz marrazten baditugu.

Kontu bakarra da
ea gure aurrean
edo gure atzean.

Ea urrutiko tren hura
aurrerantz doan
edo atzerantz.

Txoria

Segundoak mokokatzen dituen txoria.
Minutuak irensten dituen txoria.
Orduak digeritzen dituen txoria.
Oroimen-txoria,
kanpai-hots antzina itoa
orainaldira dakarrena.
Paperezko kukurutxoan
harrapaturiko txoria, malkoen lekeda batean
eseritako txoria,
zigor-ziegazko liburuen sakontasunean
hegalak astintzen dituen txoria,
oroimenaren esklabo den
txoria, idaztearen esklaboa,
paisaiaren laugarren dimentsioa
ezabatu zuen txoria,
orain erraietan txioka ari dena,
hezur hutsa den txoria, bulartxo
zikin hauskorra den txoria,
lumaje itsatsia den txoria,
azkazalaren atzeko hatz-bizarra den txoria,
jada inoiz ere
bakerik ez izateko zio den txoria.

Bataio-agiria

Jaiotza-eguna, bataio-eguna.
Giltza emandako pendulu-erlojua,
atea eror ez dadin
giltzaz itxitako armairua.
Ezkon-ohea, erlijio
utrakista, ardoa udazkeneko ekaitzetan
ozpin ez dadin. Kapilau beltza zozoa bezain,
isipua, abendu-meza.
Hiru kilo hogei,
azal gorrizta, ikterizia apur bat duena,
ile alferra. Eta orroa.
Bi milioi eta bostehun urteko adina.
Zahartzaroan baino ez dugu
ehun gutxi batzuetara murriztuko,
gure zelulek ez dute-eta
gehiagotarako ematen.